

Net Hurbil

PELLO ZUBIRIA

Bi bala txetxeniar Vienako hilotzaren burmuinean

Urtarrilaren 13an, eguerditan, Vienako Leopoldaustrassen karrikan erosketetan ari zen Umar Israilov, 27 urtekoa. Epizeriatik ateratzean bi gizon zain, hirugarrena autoan. Errebolber tiroz hil zuten Israilov txetxeniar iheslaria. Errefuxiatu paperen jabe zen eta lekuko gogaikarria.

UMAR ISRAILOVEK ONDO ZEKIEN gainean zeuzkala jazarleak. Austriako poliziari hala adierazia zion, hilketa- ren biharamunean gobernuko boze- ramale batek onartu zuenez. Baina poliziek ukatu egin zioten beretzako eta familiarentzako eskatutako babe- sa, agenteak aurrerago arriskuetan ari zirelako lanean. Israilovek Flo- ridsdorf auzoko komertzio haren atarian azkar ulertu zuen espaloian zeuden bi tipoak bila zetozkiola. Leopoldaustrassen-en behera hasi zen korrika, eskuetan zekartzan zorroak botata. Baina tiroz zaurituta erori zen, eta lurrean errematatu zuten: bi bala buruan.

Handik astebetera prentsak haiza- tu zuen kasua. Pariseko *Le Monde* k tartete handia eskaini zion, AEBetan *New York Times*ek ere bai, Suitzako *Le Temps*ek... Denek jo dute hilketa- ren susmagarritzat Txetxeniako presi- dente Ramzan Kadyrov, Kaukasoko herrialde hartan Vladimir Putin erru- siarraren eskumakila dena eta beste askoren artean Anna Politkovskaya kazetariaren hilketa ere egotzen zaio- na. Umar Israilov ez zen hura bezain ospetsua Europan, baina eskarmen- tutzat balio zezakeen.

Hain gazte izan arren Israilov kurrikulu baten jabe zen. Oso gazte- tatik errusiarren kontrako gerrillan aritu zen, 2003an Kadyroven gizo- nek detenitu zuten arte. Ondorengo

hilabeteak Txetxeniako presondegi ezkutuetako batean eman zituen. Basatiki torturatu zuten eta, gero kontatu duenez, beste arrestatu batzuen torturak eta hiltzeak ere ikusi zituen.

Errusiarrek gerra “txetxeniartu” nahi izan dute urteotan, ahal dituz- ten gerrillariak lubakiz aldatu eta Errusiaren alde borrokatzen behar- tuz. Ez ahaztu Kadyrov presidentea- ren aita bera, gerrillariak Grozniko estadioan bonbaz hil zutena, gerrilla- ri “eraldatua” izan zela. Horregatik errusiarren aldeko armadan borro- katzera behartu zuten Israilov. Honek hilabete gutxiren bueltan familia osoarekin ihes egitea lortu zuen arte. Errusian barrena Polonia- ra estreina, eta segurtasun handiago- aren bila Austriara gero.

Umar Israilovek Txetxeniako agintarien kontrako eta zehazki Ramzan Kadyroven aurkako sala- keta aurkeztu zuen Giza Eskubi- deen Europako Batzordean. Israi- lovek aitortu zuen Tsenteroi herriko kiroldagian gorde eta tortu- ratu zutela, beste txetxeniar matxi- no ugari bezala. Jipoitzen zuten, burdinazko barraz kolpatzen, metal gorituz erretzen eta baita elektro- kutatzen ere, batzuetan gimnasioko makinetan eserita.

Astean hirutan Kadyrov presiden- tea bera bertan izaten zela zioen

Erretratu txikian, eskuin aldean, agertzen dena da Umar Israilov txetxeniar iheslaria. Urtarrilaren 13an hil zuten Vienan, poliziaren babesa eskatua zuen arren. Argazki handia Olga izeneko batek paratu du Interneten eta Txetxeniako hiriburu Groznin iazko udaran dago egina: poliziaren egoitza erakusten du, atarian goardiako agentea eta horman eskegita Ramsan Kadyrov presidentearen irudia bandera barruan. Ramsan 2004an gerrillak hil zuen Akhmad Kadyrov presidentearen semea da. Vladimir Putinen laguntzarekin 2007ko udan Alu Alkhanov kendu eta bera jarri zen lehendakari, 30 urterekin. Bere milizia propioa erabili du eta Txetxeniako gizonik aberatsena da. Europan giza eskubideak gehien urratzen dituen agintaria da.

Israilovek, torturak behatzen eta tar- teka bera ere kolpeka. “Barrezka ari- tzen zen, sadikoa da”, dio prentsak eskuratu duen salaketan. Xehetasun eta izen asko zehaztu zituen.

Errusiako Gobernuak –Txetxe- niari independentzia kendu zionetik berriro Errusiar Federazioaren zati baita– atxilotzeko nazioarteko agin- dua zabaldu zuen, erakunde terroris- tako kide delakoan. Baina Israilovi agiri horrek baino beldur handiagoa eragin zion maiatzean etxean azaldu zitzaion gizonak. Artur Kurmakaiev delako batek eskatu zion Txetxenia- ra itzul zedila eta atzera egin zezala Giza Eskubideen Batzordean aur- keztutako pleintan.

Txetxenia, Europako far easta

Kadyrov presidentearen gizonak ezusteko galanta jaso zuten Kurma- kaievekin. Izan ere, Israilov ximurtu eta Groznira itzultzeko partez, elka- rrizketa haren ondoren Kurmakaiev mezularia bera izan zen atzera egin zuena. Kurmakaiev Austriako poli- ziarengana aurkeztu zen aitortzeko Groznitik bidali zutela zeregin zikin horretara eta Europan bazirela antzeko kasu gehiago, non Txetxe- niako iheslariak edo bahitu dituzten edo beren sorlekura itzuli diren eta beti ere azkenean desagertzeko.

Kurmakaievek polizia austriarrei kontaktu zien Grozniko agintariak



tzitako gizonen 2007ko irailean eta bahituta eduki lau hilabetez 2008ko urtarrila arte. Irtendakoan, *Novaya Gazeta* egunkarian adierazi zuen Tsenteroiko kiroldegian eduki zutela, gogor torturatuz. Uztailaren 19ko edizioan azaldu zen salaketa. Abuztuaren 2an, egun argitan, Groznin atzeman zuten berriro militarrek, eta geroztik inork ez du bizirik ikusi Masaev.

Giza eskubideen Txetxeniako urraketak gutxi aipatzen badira gure artean, hango gatazka politikoa erabat ahaztuta dago. Ivar Admunsen giza eskubideen militante norvegiarrak honela laburbildu du: “Jendeak arreta jartzen du Georgian, Abkhazian eta Hego Osetian gertatzen denean. Baina Txetxenia, Ingusetia eta Dagestaneko arazoak erabat ahaztuta daude Mendebaldean”.

Erresistentziaren informazio gune den *Chechen Press* irakurriz edonor ohartzen da oraindik bdirela dela Errusiaren itzaletik askatzeko indarka ari direnak. Iturri neutroagoa aipatzeagatik, ingelesezko Wikipediatik eskuratu daiteke Errusiako aginteek, Kadyroven gobernuak eta erresistentziako mundu katramilatsuak urteotan egindako bilakabidearen berri.

Austriak Umar Israiloven aseginatzea argitu behar luke ondoko hilabeteetan. Egingo ote? Errusiako gasak gehiegi balio du hilotz horrengatik zalapartan hasteko. ■

www.argia.com/nethurbil.php helbidean, gai honi buruzko informazio gehiago eta Interneteko loturak.

iheslariak harrapatzeko antolatutako sare berrikoa zela. Deklarazioan zehaztu zuen bere begiez ikusi zuela Kadyrovek Gudermes hirian daukan jauregi barruan 5.000 txetxeniarriskutsuren izenen zerrenda, eta esan zitzaiola horietatik 300 hil beharrekoak zirela, 50 Austrian bertan.

Handik gutxira Kurmakaiev Txetxeniara itzuli zen, komunikabideek ez diote ez nola eta ez zergatik. Geroztik ez da haren arrastorik. Alta, Kurmakaievek hasitako lana beste norbaitek bukatu du: iheslaria etxeratzea behartu edo kalitu. Amnesty International erakundeak eskatzen du argitzeko Israiloven hilketa eta Kurmakaieven desagertzea.

Israiloven akabatzea, Austriako agintarientzako diplomaziako buruhausteen iturri izateaz gain, anekdota litzateke bakarria balitz. Baina Amnesty International, Human Rights Watch eta beste erakundeek antzeko kasu gehiago bildu dituzte informetan, eta errudun nagusi Kadyrov presidentea jo.

Human Rights Watchek kalkulatu du 1999tik iaz arte 5.000 herritar “desagerrarazi” dela Txetxenian, ia beti armada errusiarrak, polizia txetxeniarrak edo paramilitarrek harrapatuta. 2008an bertan iraila arte 30 pertsona bahitu zituzten, horietatik zortzi desagertuz.

Hauetako bat da Mokhmadalakh Masaev-en kasua. Gudermesen arrestatu zuten militarrez jan-



ZINKUNEGI
OPTIKA

Kalitatea.

Aukerarik zabalena betaurreko graduatu, ukipen-lente, audiofono eta eguzkitako betaurrekoetan.

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624 · zinkunegi@euskalnet.net

